

Nafarroako Garapen Kohesionatu eta Solidariorako Gizarte Berrikuntzako Landa Agentea online ikastaro

2020ko maiatzak 15etik 30era Online,

Nafarroako Gobernuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuko Errealitate Sozialaren Behatokiaren bidez, '**Nafarroako Garapen Kohesionatu eta Solidariorako Gizarte Berrikuntzako Landa Agentea**' online ikastaroaren lehen edizioa sustatuko du, Foru Komunitatean landa ekonomia berria osatuko duten proiektuak garatzeko aukera emango duten 30 lurralde-eragileri prestakuntza eman diezaieten.

Ikastaroa maiatzaren 15etik 30era emango da, eta urrutiko prestakuntzako 30 ordukoa izango da; besteak beste ikasleen elkarreragitean eta proaktibitatean oinarrituko da, estatuko eta nazioarteko esperientzia profesionala eta jardunbide egokiak batuaz.

Ikastaroa

‘Nafarroako Garapen Kohesionatu eta Solidariorako Gizarte Berrikuntzako Landa Agentea’ [El Hueco](#)k garatuko du; hau da, Espainian ekintzaitza soziala eta berrikuntza soziala sustatzen aritzen den erakundeak, bereziki landa-eremua birpopulatzea helburu duenak. Modu horretan, tokiko esperientziak aurkeztuko dituzte, despopulatzeak mehatxatutako lurraldeetan eta landa-eremuaren barnean burututako gizarte-berrikuntzako jardunbide egokiak erakusteko parte-hartzaileei. Horrela, erremintak eta estrategiak eskainiko dira landa-eremuetako erronkak, landa-errealitatea gizarte-berrikuntzaren bitartez berkonfiguratzeko duen garrantzia edota proiektuen inpaktuaren ebaluazio egokia ulertzea lortzeko helburuarekin, horien analisi baliagarria ziurtatuaz, beste lurraldeetara eramatea erraztearekin batera.

Programan hamar espezialistatik gora bilduko dira, eta tartean aipatzekoa da ‘[100en Taldeko edo G-100-eko](#)’ kideek hartuko dutela parte, hots, Terris proiektuan, Lurraldea eta Gizarte Berrikuntzan, lan egiten dutenek. Era berean, ikastaroan berrikuntza sozialeko esperientzia praktikoa landuko dira, landa-eremuan erreferenteak direnak eta Espainiako leku ezberdinetan abian jarritakoak.

Ikastaroa 30 lagunentzat izango da, landu beharreko gaiaren inguruko ikasketak dituztenentzat edo ez dituztenentzat. Ikasleak arreta handiz hautatuko dira, programa aprobetxatzea ziurtatzeko; halaber, despopulatzeko arriskuan dauden udalerrriak aldatzeko eragileen ahalik eta parte-hartze handiena sustatuko da, ezagutzak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen errealitatera transferitzea ziurtatzeko nahiz esperientziak trukatzeko giroa aberasteko.

Inskripzioak

Izena emateko epea amaitu da. Parte hartzeko inprimakia betetzen duten pertsona guztien artean **30 ikasle hautatuko dira, eta maiatzaren 8a baino lehen jakinaraziko dira.**